



**AIZPURU MURUA, Mikel**

**El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política**

Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000. - 510 p. : gráf., mapas ; 23 cm. 84-8373-286-6.

“Gogoko aldapan nekerik ez” dioen atsotitzarekin ez du bat egingo hizpide dugun liburu horren egileak. Izan ere, nere iduriko, Mikel Aizpuru bere Doktoradutza Tesia burutzeko gustuko lana hartu zuelakoan, ziur aski, ez zuen pentsatzen zer nolako nekeak, oztopuak, dokumentazio mailako hutsuneak eta gabeziak gaintitu beharko zituen, aldez aurretik pentsaturiko helmugetara iristeko. Horiek, leial leiala, aintzinako orrialdean aipatzen dizkigu: 1. Zein izan zen Sabino Aranak Bizkaian sorturiko mugimendu gizapolitikoaren eragina Gipuzkoan, 1893-1923 tartean. 2. Zeintzuk izan ziren mugimendu horrek lortu zuen ezarrerari lagundu zizkioten baliabideak.

Aipaturiko helburu horiek zabalak bezain oinarrizkoak dira. Edozein mugimendu eta esparru geografiko edota denborazkoa lotzeko egin daitezkenak hain zuzen ere. Baina funtsezko galdera horiei erantzuteko ikerketaren aldapa igotzen laguntzen dituguten mailak oso heterogeneoak eta eskasak izateaz gain, erabat barreiatuak ditugu, mota eta munta desberdinetako agiritegietan zein hemerroteketan, baita famili ondare dokumentaletan ere. Jakina denez iraganaren ildotik gero eta atzerago jotzeak eremu informatibo zuzenen desitxuratzea eta murriztea dakar. Ahozko iturrien ahuldadearekin batera, historia politikoarentzat ezinbesteko osagaiak diren testuak, barne idatziak, bazkideen zerrendak ez izateak basamortuko ibilbidearen itxura ematen dio ikerlariok jorratu behar diogun lanari. Hala eta guztiz ere historiagile gabiritarra ez zen bat ere kokildu eta prentsaren bitartez, baita agiritegi nagusi zein udal artxibo askotan eginiko lanari esker, Errestaurazio garaiko euskal nazionalismoak Gipuzkoan emandako urrats askoren berri eta horien azpian dagoen hari historikoa eskeintzen digu.

Hiru hamarkadako ibilbidea du aztergai liburuak, Gamazada eman zen urtetik, Primo de Riveraren Diktadura iritsi bitartekoa. Makulu bideegileak izan ditu testuinguru gizaekonomiko eta politikoa argitzeko Felix Luengok eta Luis Castellesek egindako ikerlanak. Baina Aizpuru berek ere, arlo politikoan zein kulturalen, eskeini digun sintesia mugarriztat jo daitekelakoan nago. Tesiaren mamiari begiratu honako lau ataletan egituratu zuen bere lana: Euskal nazionalismoaren sorrera Gipuzkoan; 2. Sendotze aroa, 1908-1915 bitartean; 3. Zabalkundea, 1916-1923 urtetan; 4. Bizitza politikoa eta hauteskundeak.

Lehen atalari dagokionez, Engrazio Arantziadik bere garaian emandako lekukotasuna, hainbat integrista gipuzkoarrek, foruzaletasunatik abiatuz nazionalismora burutu zuten bilakaerarena, zehatz mehatz aztertzen digu tesiak. Gamazadaren abagunean gauzatu zen euskal lurraldeen arteko sentimenduaren giroan murgilduta, nazionalismoarekin bat egin arte, Lardizabalek, Arantziadik, Rezolak eta enparauek

burutu zituzten hurbiltze urratsak zehaztasun oparoz isladaturik daude. Dena den ez da horretara mugatzen, eta XX. mende hasierako kinka politikoa eta lehen nazionalista gipuzkoar horiek nola jokatu zuten, Liga Foral Autonomista delakoaren aurrean, esate baterako, azpimarratzekoa da.

Bigarren atalean, Bizkaian Aranaren jarraitzaileek izan zuten aitzindaritzaz baliatuz, lurralde horretan gertaturikoa nolabaiteko iparorratza bilakatzen zaigu, jeltkide gipuzkoarren lehen urratsak adierazteko. Izan ere erakunde eta elkartekide bizkaitarrei arreta berezia eskeini die Mikel Aizpuruk 1908-1914 urteetan egin zituzten asanbladak eta manifestuak ulertarazteko. Urte horietan euskal nazionalismoak jasan zuen zapalkuntzak edota komunikabide idatzien esparruan izan zuen garapenak behin eta berriro Gipuzkoako eta Bizkaiko mugetan barrena mugierazten gaituzte. Hala ere testuinguru eta aitzindaritza bizkaitarra tesiaren osagai eta legamia izan daiteken arren, mamia Gipuzkoan bertan kokaturik dago erreferentzi aunitzekin. Gipuzkoa Buru Batzarraren azterketa egiteaz gain, EAJko lerroetan laketu ziren oinarriko bazkideen azterketa egitera ausartu da Mikel Aizpuruk. Zeuden jeltkideen zerrendetaz eta batez ere zeharkako aipuetaz baliatuz, ondorio esanguratsuak bezain ausartak plazaratu dizkigu. Deba Garaiko ekintzaile karlisten eta jeltkideen arteko gonparazioa, beste eskualdetan, egin beharra dagoelakoan gaude, testuan azaltzen den tesia, karlisten eta nazionalisten arteko jarraipenik ezarena alegia, ontzat emateko. Euskal nazionalismoaren oinarri eta ezaugarri sozialak honelako adorez aztertu ez ezik, bere praxia ere ikertu du sakonki orduko ardatz edo gako politikoen arabera. Horrela gizarte arazoaren aurrean, autonomiaren aitzinean eta erlijio kontuetan EAJ gipuzkoarrak aurrera eraman zituen jokaerak eskeini dizkigu ikerlari gabiritarrak.

Bigarren atalean azaldu diren lan ildoak, bide erosoak bilakatzen dira 3garrenean. Euskal nazionalismoak izan zuen garapen handia dela medio, atal horrek duen izenburuarekin bat eginez, sendotu eta zabaldu egiten da ikerlana, gure ustez, liburuaren jomuga erdietsiz. Testuinguru bizkaitarra, hasiera batetan oso nabarmena bada ere, geroxeago, ia ia urtez urte egindako deskribapen zehatzak Gipuzkoan nazionalismoa izan zituen adierazpide aunitzetan buru belarri kokatzen gaitu. Arras aberatsa da prentsaren azterketa, "Gipuzkoarra"rena zein "Kaiku" aldizkariarena. Baina, ezbairik gabe, azpimagarriena nazionalistek burutu zituzten ekitaldien bilduma oparoaren azterketa dugu. Aizpuruk 2.577 saioren berri emateaz gain, horien sailkapena egin digu zuzenki politikoak ez diren ekintzen garrantzia azalarazteko. Ildo honetatik jarraituz, antzerkiaren nagusigoa adierazten du taula eta testuaren bitartez. Antzeko lan ikaragarria aurrera eraman zuen ikerlari gabiritarrak alderdi jeltzalea osatzen zuten bazkideen gizaprofilak ezagutarazteko. Gipuzkoako eskualde gehienetako 2.335 jeltkideen zerrenda onarritzat harturik alderdi horren aniztasun soziala, gizartearen islada dena, baliogarrri izan du klase baxu eta ertainetako gehiengo oso nabarmena lagatzeko.

Azken atalak, nazionalista gipuzkoarrek hauteskunde era desberdinetan izan zituzten gorabeherak ezagutzeko hagitx baliotsua dugu. Gortetakoak, udal mailakoak eta aldundikoak aztergai ditugu. Aizpuruk ondorioztatzen duen legez, nolabaiteko arrakasta sumatzen bada Diputazioan nahiz udaletan askoz apalagoak izan ziren Madrilgo Parlamentura joateko burutu ziren bozketako emaitzak. 1923ko udazkenean izandako Kolpe militarrek bukaera eman zizkion hauteskunde lehia horiei baita tesi honen aztertze aroari ere. Hala ere, kontutan hartzen badugu, liburuaren ondorioetan azpimarratzen den praxi kulturalistak izan zuen nagusigoa, gure galdera-eskaera hauxe izanen litzateke: Zergatik ez luzatzea ikerketa hori 1930 arte, Ditadura Primorriverista amaitu zen arte alegia. Horrela errazago ulertuko genuke Euskal nazionalismoak, Gipuzkoan, II Errepublikan zehar, izan zuen arrakasta politikoa, karlismo bezalako mugimenduak alboratuz. Bide batez, lagunduko litzaignuke konprenitzen zergatik hori ez zen gauzatu, errate baterako, Nafarroan nun 1920ko hamarkada EAJren hedapena

zein inizatibak Gipuzkoako mailara iristen ziren. Hau bezalako tesi mardul guztiek dakarten zama eta lan astuna oso atzean gelditu den oraingoan, Errepublikako aroa jorratzeko, gogo handiz eta neke gutxiagoarekin ibiliko zelakoan, gomitatzen diogu Mikel Aizpururi. Eremu historiko horietan gabiltzanok, orain hizpide izan dugun liburua eskertzen dugun bezala, eskertuko genioke eta.

*Josu Chueca Intxusta*



**ALBERDI LARIZGOITIA, Alberto**

**Tasa de beneficio, crecimiento económico y distribución de la renta. Una visión postkeynesiana con aplicación a las economías vasca y española en el período 1965-1995**

En: Azkoaga. Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas / Eusko Ikaskuntza. - N. 10 (2001). - 136 p. : gráf. ; 24 cm. - ISSN: 1137-442X. - ISBN: 84-8419-933-9.

Un comentario en torno al ensayo de Alberto Alberdi titulado “Tasa de Beneficio, Crecimiento Económico y Distribución de la Renta” no se improvisa.

A pesar de lo que el autor manifiesta explícitamente en la introducción, el libro no es de fácil lectura y no lo es porque su erudición, que aparece a lo largo de todo el texto, le incapacita para darse cuenta de la cantidad de teorías que maneja y de la cantidad de conceptos que elabora.

Alberto Alberdi ha aprendido economía leyendo y estudiando a economistas, a muchos economistas. Se ha hecho una idea de lo que le gusta, de lo que le parece razonable e interesante y da por hecho que cualquier lector mínimamente interesado puede seguir su línea de argumentación. Y se puede, claro que se puede, pero hay que poner esfuerzo y empeño en la tarea y no porque el ensayo esté obtusamente escrito o pobremente concebido sino porque utiliza conceptos complejos, literatura muy amplia y conocimientos muy especializados sobre todo de autores que, podríamos decir, no están “de moda”.

Pues, aunque parezca mentira, también en economía, en general y en macroeconomía en particular, existen modas y tendencias. Máximo en esta época en la que aquellos a los que nos gusta la macroeconomía, hemos visto cómo se multiplicaban los artículos, las aportaciones, los libros en temas tan diversos como crecimiento, ciclos reales y monetarios, progreso tecnológico, interacción entre políticas monetarias y fiscales, papel de las instituciones y un largo etcétera. Una época en que la investigación en teoría macroeconómica ha sido particularmente viva y, en muchos casos, exitosa. Pero a pesar de la dificultad comencemos con la revisión de la obra. Y como inicio, nada mejor que un reconocimiento.

El tema, mejor sería decir los temas, que trata en el ensayo son no sólo actuales, son también relevantes. Al autor le interesa la productividad, el crecimiento, la